

MOTA	ABANTAILAK	DESABANTAILAK
BANAKAKO ENPRESARIA	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago eraketa gasturik. - Ez dago bazkiderik. Ezta hortik eratorritako arazorik ere. - Etekina uste baino gutxiago izanez gero, PFEZ zergaren ordainketa onuragarriagoa izan daiteke (%30eko tasa mugarekin). - Kontabilitateko formalitateak murriztagoak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresariaren erantzukizuna mugagabea da. - Ez da bereizketarik egiten ondare pribatu eta norberaren ondarearen artean. - Sozietate batek baino prestigio gutxiago. - Merkataritzako sozietateen aldean, arauketa ez da hain zehatza. - Jaso gabeko langabezi sariaren %40 baino ezin du kapitalizatu (urrituen kasuan, %100)
ONDASUN ERKIDEGOA (OE)	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako enpresariaren kasu bera, baina bazkideekin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako enpresariaren kasu bera. - Kode Zibilean jasotako manuak eskasak dira, eta zaharkituta daude. - Jaso gabeko langabezi sariaren %40 baino ezin du kapitalizatu (urrituen kasuan, %100)
ERANTZUK. MUGATUKO SOZIETATEA (S.L.)	<ul style="list-style-type: none"> - Gutxieneko kapital soziala 3.005,06 eurokoa da (SA-n 60.101,21 eurokoa). - Diruzkoak ez diren ekarpenei ez zaie kanpoko peritu bidezko azterketarik egin behar. - Batzar Nagusia: Deialdirako eta erabakiak hartzeko baldintza malgu eta merkeagoak. - Eraketa: SA baino merkeagoa (kapital soziala gutxiago denean). - Arauketa espezifikoa eta erabatekoa du. - Bazkideek SA-n baino protagonismo eta kontrol handiagoa dute partaidetzen gainean (lehentasunez erosteko eskubidea). - Merkataritzako trafikoan gehien erabiltzen den figura da. - 2003az geroztik SL Enpresa Berria ere badago; sinpleagoa da, eta mikro enpresa eta ekintzaileei zuzenduta dago. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eraketa eta erregistro gastuak ditu. - Kontabilitateko betebeharrak zorrotzagoak eta konplikatuagoak dira Enpresa Berriko SL da salbuespena, kontabilitate sinplifikatua erabiltzen duelako. - Bazkideek ezin dute jaso gabeko langabezia kapitalizatu.
SOZIETATE ANONIMOA (S.A.)	<ul style="list-style-type: none"> - Arauketa espezifikoa du. - Enpresari prestigio edota ospe handia ematen dio. - Enpresa handientzako aproposa da - Burtsan kotiza dezake. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hasieran jarri beharreko kapital soziala esanguratsua da: 60.101,21 euro - Diruzkoak ez diren ekarpenei kanpoko peritu bidezko azterketa egiten zaie. - Batzar Nagusia: deialdiak egin eta erabakiak hartzeko baldintza zorrotz eta konplikatuak. - Eraketa: Sozietate Mugatua (SL) baino garestiagoa (kapital soziala ere handiagoa delako) - Bazkideek ez dute kapitalaren gaineko kontrolik: salmenta askeko akzioak. - Bazkideek ezin dute jaso gabeko langabezia kapitalizatu.
LAN SOZIETATEA (S.L.L./S.L.A.)	<ul style="list-style-type: none"> - SL edo SA baten abantaila berberak (hartzten duen formaren arabera, betiere). - Gizarte ekonomiako enpresentzat laguntza espezifikoa daude. - Ondare-eskualdaketen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita daude. - Langile finkoek enpresaren kapitalaren gaineko partaidetza izan dezakete. - Enpresaren kontrola (%50 baino gehiago) langileen esku dago. - Bazkideek jaso gabeko langabezia kapitalizatu dezakete (ordainketa bakarra). 	<ul style="list-style-type: none"> - SL edo SA baten berberak (hartzten duen formaren arabera, betiere). - Sozietateen gaineko Zergan, momentuz, ez dute hobaririk. - Gutxienez 3 bazkide. - Bazkide bakoitzak ezin du eduki kapital osoaren 1/3 baino gehiago. - Bazkideek jaso gabeko langabezia kapitalizatu dezakete.
KOOPERATIBA ELKARTEA (Koop. EIk.)	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren kontrola langileen esku dago. - Ondare-eskualdaketen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita daude. - Hobari fiskal garrantzitsuak ditu, Sozietateen gaineko Zergan: %20ko tasa, ohiko %28aren aurrean. - Bazkideek jaso gabeko langabezia kapitalizatu dezakete. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez 2 bazkide langile. - Gainerako sozietateen aldean, organo sozial bereziak dituzte, kudeatzeko orduan ezezagunagoak direnak. - Bazkideek jaso gabeko langabezia kapitalizatu dezakete.